

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak edozein enpresa martxan jartzeko beharrezkoa den funtsa dira. Gure enpresaren bezeroen artean hainbat persona mota daude, berdin dio zer adin, genero, neurri edo estilo duten, edonork erosi dezake gure dendan. Hala ere, guk ekoiztutako produktuak **publiko gazteari** bereziki zuzenduta daude, gaur egun ingurumenaren babesaz informazio gehien jaso duen taldea baita. Ildo beretik, gure bezeroak taldekatzen duen ezaugarri komuna, zalantzarik gabe, **naturarekiko ardura edo kezka** da.

Enpresaren kokalekuari dagokionez, fisikoki eta teknologia baliabideetan enpresaren produktuak eskuragarri egongo daude.

Era horretan, gure denda fisikoa Bilboko Galtzada Nagusiko kalean kokatuta egongo da, bezero talde zabal bati irekita egoteko. Izan ere, Bilbo Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburu jendetsunea izanda, gure dendak pertsona askoren arreta deituko du eta bereziki inguruko herriatetik etorritako jendea erakarriko du.



Bezero fisikoak ez ezik, teknologia baliabideetatik baliatzen diren bezeroak ere badaude. Hauek gure Instagram kontutik zuzenean edo gure webgune ofizialetik produktuak eskuratu ahalko dituzte. Beraz, pertsona gehiagori irekiko diegu gure dendan kontsumitzeko aukera. (Hala ere, zein lurraldeei teknologikoki erosteko ahalmena ahalbidetuko diegun zehaztear dago. Suposatzen dugu, lehendabizi Bizkaian jardungo dugula, eta enpresaren dimentsioa hazten baldin bada, Euskal Autonomian Erkidegoan zehar beste filial batzuk irekiko ditugula) .



Hari beretik, bezeroek dendari arropa edo edozein ohial multzo baten dohaitza eman nahi baldin badiote, Bilboko dendan bertan aurrera eraman ahalko dute. Behin donazioa eginda, deskontu-txartel bat emango diegu, fabrikatuko ditugun ondasuenetan gasta dezaten. Horrez gain, gure webgune edo Instagram kontuaren bitartez, donazioak egitea ere posible izango da. Horretarako, posta-zerbituaz baliatuko gara eta bezeroei bildaltze-gastuak ordainduko dizkiegu. Horretaz aparte, arropa donatzeko beste modu bat, zenbait udaletan ipiniko ditugun edukiontzietan arropa jaulkitzea da. Ondoren edukiontzia deskontu-txartel bat emango dizu arroparen pisuaren arabera, kilo bat 3€. Suposatzen dugu donazio multzo honetan parte hartuko duten bezeroek, ondoren gure produktuak kontsumituko dituzten berdinak izango direla; hau da, guztien ezaugarri nagusia naturarekiko ardura izango da.

